



Koronabirusari iskin egin diote

Pandemiak Atsobakar zahar etxeko ohiko jarduna aztoratu badu ere, egindako moldaketei esker egoiliar bakarra ere ez da kutsatu / 8-9

Aldaketak datoz

Ondo bidean, arintze fase berri bati ekingo dio Lasarte-Oriak maiatzaren 25ean / 6-7

Uste baino gehiago luzatu eta korapilatu da maiatzeko ohiko udalbatzarra. Hiru ordu eta erdi, eztabaidan / 4

Koronabirusak Intza KEari eta Ostadar Saskibaloari eragindako etenaldia, eta ikasturte berria / 11-12

ATE IREKIEN
JARDUNALDIAK



USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA

Aurten
online!!

www.ihusurbil.eus

Maiatzaren 23an eta 27an

Ez galdu aukera!!



Zatoz gu ezagutzera!

Covid-19aren bulegoa eskaerak lantzen hasi da

Covid-19aren bulegoa sortu berri du Lasarte-Oriako Udalak, Covid-19aren krisiaren ondorioz "arazo ekonomiko handiak" dituzten familiei laguntzeko. Orain arte 99 eskaera tramitatu ditu, eta ia erdiak onartu: 47 guztira. 60.300 euro banatu ditu laguntzatan

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak bulego berezi bat sortu du, koronabirusak eragindako egoeraren ondorioz "arazo ekonomiko handiak" dituzten familiei laguntzeko. Berriki 400.000 euroko diru-laguntza lerro bat iragarri du ABEE batean dauden pertsonen, langabezian geratu direnei eta alerta egoerak iraun bitartean "diru-sarrerak nabarmen" murriztu zaizkien autonomoei bideratuta. 99 eskaera tramitatu ditu eta 47 onartu; 60.300 euro banatu ditu orain arte.

Covid-19aren bulegoak azken bi asteetan jaso dituen diru-laguntza eskaeren %47 onartu ditu: 99tik 47. Emango dituen laguntza horiek hiru hilabeterako izango dira, 300 eta 500 euro artekoak. Udalak jakinarazi duenez, hemezortziri ezetz esan diete, "eduki ditzaketan gehieneko diru-sarrerak gaiztatu dituztelako eskatzaileek". Beste 34 kasuetan, eskatzaileek ez dute beharrezko dokumentazioa aurkeztu. Ukatutako kasuetatik, udal teknikariek zazpi eskatzaile lagundu diete DSBE Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta tramitatzeko, telematikoki. Beste zenbait pertsona, berriki, Gizarte Zerbitzuetara bideratu dituzte, beste diru-laguntza batzuk eskatu



Udal ordezkariak, Covid-19aren bulegoan, Mirentxun. LASARTE-ORIAKO UDALA

behar dituztelako: GLL Gizarte Larrialdietarako Laguntza, genero indarkeriaren biktima izateagatik eskatu daitekeena, e.a.

400.000 eurora arte

Lasarte-Oriako Udalak, gehien jota, 400.000 euro bideratuko ditu diru-laguntza lerro horretara, baina baliteke partida hori handitzea, "beharrezko baldintzak ematen badira". Diru-laguntza deialdia indarrean egongo da Alarma Egoera amaitu eta hilabetera arte -oraingoz ekainaren 7ra arte luzatu du gobernuak,

asteazken honetan Diputatuen Kongresuan akordioa erdietsita.

ABEE batean dauden langileek, langabezian geratu direnek eta martxoaren 14tik aurrera euren jarduerara aldi batez edo behin betiko eten behar izan duten autonomoek eska ditzakete laguntza horiek. 300 eta 500 euro arteko laguntzak jaso ditzakete, gehienez, hiru hilabetez. Mirentxun aurkeztu behar dute beharrezko dokumentazio guztia, 636 148 998 telefonora deitu eta aurrez hitzordua eskatuta, edo, bestela, www.lasarte-oria.eus webgunean.

Matrikulazio epea ireki du Andre Joakina Enea haurreskolak

Ostegunean zabaldu du online izena emateko epea herriko haurreskolak, eta ekainaren 8ra arte iraungo du

Txintxarri

Abiatu du Lasarte-Oriako Andre Joakina Enea haur eskolak 2020-2021 ikasturterako izen ematea. Ostegunean ireki dute matrikulazio epea, eta jakinarazi dutenez, ekainaren 8ra arte

izango da horretarako aukera, bi datak barne hartuta.

Interesa dutenek bi bide izango dituzte matrikula egiteko. Batetik, online egiteko aukera izango dute, ekainaren 8ra arte. Horretarako, helbide hau erabili

ahal izango dute: <https://ikasgunea.euskadi.eus/eu/inicio>. Aurrez aurre egin nahi dutenek, ordea, ekainaren 1etik 8ra egin ahal izango dute, bi datak barne hartuta, eta 09:00etatik 14:00etarako ordutegian, haurreskolan bertan.

Kontsultak egiteko aukera

Edozein kontsulta egiteko 943 36 72 38 telefono zenbakira dei dezakete, edo lasarte-oria@haurreskolak.com posta elektronikoko helbidera idatzi.



Lasarteoriatarrek Ama Brigitarren komentuko mezan. TXINTXARRI


Etenaldia eta gero, herriko fededunak mezetara itzuli dira

Ama Brigitarren komentuan elkartu dira herritarrek, mezetako bat entzuteko. Herritar batzuk kanpoan geratu dira

Txintxarri

Ama Brigitarren komentua izan da atek berriro irekitzen lehena. Hainbat herritarrek kanpoan gelditu behar izan dute, 18:00etako meza hasi baino lehen bete baitute gehienezko edukiera. Segurtasun mugak tarteko, heren

batek, 40 lagunek izan dute meza entzuteko aukera, denek maskara jantzita. Hileta elizkizuna izan da itzulerako lehena, berriki hil den 96 urteko Frantxiska Saizar mojarrena. Hura gidatzeko ardura Felix Garitano eta Ramon Uribe-Etxebarriak apaizek izan dute.



Bideo-deien bidez jarraitu ahal izango dira formakuntza saioak. KZGUNEAN

Zuzeneko formakuntza telematikoen eskaintza

Interesatuak etxetik jarraitu ahal izango dituzte zuzeneko saioak. Taldeak, kopuruz murriztuak izango dira

Txintxarri

KZgunean herritarren prestakuntzaren aldeko apustua egiten jarraitu nahi dute, eta horregatik, formakuntza modalitate berri bat abiarazi dute. Hezitzaileek eskaintako zuzeneko prestakuntza, bideo-deien bidez (bi orduko bi saio) eta 4-6 pertsonako talde murriztuentzat. Interesatuak etxetik atera gabe parte hartu ahal izango dute.

Izena eman nahi duten herritarrek, inprimakia bete beharko dute, eta honako hiru

datu hauek eskatuko zaizkie: datu pertsonalak eta harremanetarako datuak; lehentasuneko ordutegia eta hizkuntza eta intereseko ikastaroak. Izena eman duten herritarrek bi mezu elektronikoki jasoko dituzte, ikastaroaren hasierako data eta ordutegiarena lehena, eta bideo-deira sartzeko estekarena bigarrena.

Informazio gehiagorako hiru bide ezberdin: www.kzgunea.eus helbidea, 945 016 100 telefono zenbakia, eta kzc@kzgunea.net posta helbidea.



Lasarte-Oriako pentsionistak asteleheneroko aldarrikapen ekitaldi batean. Irudia artxibokoa da . TXINTXARRI

Itxialdiak ez ditu herriko jubilatuen aldarriak eten

Koronabirusaren ondorioz, bi hilabete dira Okendo plazako aldarrikapenak bertan behera geratu zirenetik, baina ez daude geldirik. Osasun agintarien gomendioak errespetatzearekin batera, pentsio sistema publikoaren defentsan jarraitzen dute Lasarte-Oriako pentsionistek

Txintxarri

Osasun agintariak gomendatutako arauak errespetatzen jarraituko dute herriko pentsionistek, baina erantzukizun berarekin euren eskubideak eta pentsio sistema publikoaren defentsan jarraitzeko asmoa ere agertu dute. Orain arte egin duten modu berean azpimarra berezia egin dute emakume pentsionistengan: "Ehunka mila pentsiodunek, gehienetan emakumeak, jasaten duten miseria eta husteriazko pentsioak amaitu behar ditugu". Horrekin batera bizitzen ari garen egoera honetan pentsioen mozketak ez dituztela inola ere onartuko nabarmendu dute.

Herritarren gehiengoak modu "oso arduratsuan, ahalegin kolektibo" egin ondoren, beharrezko aldietan sartzea "lasaitu ederra eta garrantzitsua" dela uste dute. Hala ere, "kontuz jokatzeko" deia ere egin dute: "Beharrezko joeran sartu izanak ez du esan nahi birusa kontrolatuta dagoenik, osasun agintariak gomendatutako segurtasun neurriak mantentzen jarraitu behar dugula baizik".

Atzera pausuek "infekzio eta heriotza berriak" suposatuko lituzkeela gogorarazi dute. Espainiako politikariak lehenetsuneko gai honen inguruan adostasuna bilatzeko "ahalegin handiagoa" egin

zezaketela aldarrikatuz, Frantziako eta Portugaleko adibideak ekarri dituzte gogora: "Horiei imitatu ahal izan baliete, hain urrutiraino ez joateko, non adostasuna izan baita araua, pandemia ikaragarri honi irtenbideak bilatzeko orduan".

Ildo horretatik, komunikazio-agiri desberdinetan errepikatu duten beste aldarri bat ere ekarri dute oraingoan; adinekoentzako arreta publikoa eta sektore publikoa indartzeko beharra, hain zuzen, eta lelo "garbi bat" gehitu diote: "Pertsonen osasuna eta bizitza lehenetsi behar dira, adinekoen duintasuneko arrazoiak alde batera utzi gabe".



NEURE KABUZ

ASIER ODRIOZOLA

Normaltasuna

Bagara batzuk bizitzari asko samar eskatzen diogunak. Ez gara errenditzen gauzak "normal" joatearekin, zukuia nahi dugu, emozioak, instante kilikagarriak. Izateko modu bat da, Eneagrama edo nortasun ezberdinen sailkapen ereduaz zarpigarren zenbakia, su artifizialak, kolorea, festa behar dituen horietakoa. Gabezia asko ditu izateko era horrek, azalekotasuna nabarmenena.

Ditxosozko COVID19 honekin ordea, Eneagramako zenbaki guztiok egin dugu hausnarketa, seguru, eta bakoitzak aterako zituen honezkero bere ondorioak. Nireak garbiak dira: etxekoan oreka lehengo normaltasunak arautzen zuen, hau da, aste barruan bakoitza berean egoteak, dela ikasketatan, dela lanean. Bi-hiru hilabetez ordea eskema hori hankaz gora jarri du konfinamenduak. Denok etxean batean egotea gauza handia izan da eta tentsio bidea ere bai, haurren adina aintzat hartuta. Etxea atsegin edukitzearen balioa, sukaldean inbertitutako denboraren gozamenak, ariketa nekez egin ahal izanaren pisua, familiar hitzorduak atzeratu beharra, lagunekin bideo-deien bitartez bakarrik hitzegitearen estutasuna... Estimaten ez genuen normaltasunaren oroimena, azken batean. Joan dira, ustez, asterik gogorrenak eta ba omen dator "normaltasun berria".

Kosta behar zaigu ederki betidanik izan ditugun eta barruan errota dauden ohitura eta jokaera batzuei eustea, hurbilenekei bostekoa, besarkada, emateari muzin egitea. Ikusmina dut galanta. Aste gutxiren buruan jakingo dugu adituek eta agintariak ezarriko duten kode berria zertan gorpuztuko den eta jakinmina dut ikusteko hain kaleko, hain tabernako, hain terrazatako den gure gizarteak nola kudeatuko duen egoera hori. Gure aurretik asko dira gerratatik atera diren arbasoak, hau izan da gure bizitzatako nolabaiteko gerra eta aterako gara, zauri batzuekin, hori bai.

1502. zenbakiko iritzi zutabearen egindako akats bat zuzentzen

Iragan asteko 1.502. zenbakian argitaratutako akats bat zuzendu nahi du TXINTXARRI-k ohar honen bidez. Jexux Artetxe zutabegileak idatzitako testua ez genuen bere horretan argitaratu, ez baikin konturatu beraren zutabeari ez zegokion paragrafo bat ezabatu behar genuela. Plantila zahar bat

erabili genuen maketa prestatzeko, martxoaren 13ko 1498. zenbakikoa, eta Gorka Alvarez zutabegilearen testuaren zati bat utzi, nahi eta konturatu gabe. Honako hau da: *Ez zaizkigu axolako momentu horretan, behinik eta gure taldearen finalaz Coronita bat eskuan eta kideak alboan, koro baten gisara, kutsaturiko gizarte honen erritmoak ahots ozenez abesten baditugu.* Aldizkariaren edizio digitala aldatu dugu.

ESKULANAK
LH3, LH4, LH5 eta LH6koentzat

LARUNBATETAN, 11:00etan Maiatzaren 23an 1600 SHOR
ESKULAN DESBERDINAK IKASIKO DITUGU!

Jitsi erabiliko dugu. Ordenadore, tablet edo mobila erabili daiteke.
<https://meet.jit.si/GazteKlubaEskulanak>

Saiorako material hau eskura izatea gomendatzen dizuegu:
Koloretako orriak eta gorazeak.

Izena ematea ez da derrigorrezkoa baina aurretik abisatzea eskertuko genuke; aisia@ttakun.eus edo 695783392


Ttakun Kultur Elkartea

Zozketa!

Ttakun Kultur Elkarteak bazkide zara?

DISKO SORTA zozkatuko dugu
Eman izena maiatzaren 30a baino lehen.

harpidetza@ttakun.eus helbidean,
edo 646. 82 44 66 (whatsapp)



Alderdi guztietako ordezkari politiko guztiek parte hartu dute maiatzeko ohiko udalbatzarrean. TXINTXARRI

Ohikoa bezain ezohikoa izan da

Telematikoa, luzea eta korapilatsua izan da maiatzeko ohiko udalbatzarra. Hasiera batean 11 puntuko gai ordena aurreikusita bazegoen ere, hamabigarren bat gehitu dute urgentziaz, tabernariak aurkeztutakoa. Uste baino nahasmen handiagoa eragin du

Maddi Zaldúa

2019ko aktak onartzearekin ekin diote maiatzeko saioari. Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos alderdiko David Ares izan da hitza hartu duen bakarra, aktaren batean topatu duen akatsen baten berri emateko. Xabier Egea idazkariak, hurrengorako, plenora akatsak zuzenduta eramateko, ahal dela lehenago abisatzeko eskaera egin dio Aresi.

2020. urteko aurrekontuko 1. kreditu transferentziak espedientearen bidez egin beharreko kreditu aldaketaren berri eman du alkateak bigarren puntuan, eta, eztabaidarik gabe, 2020ko aurrekontuko 1. kreditu txertaketak espedientearen bidez egin beharreko kreditu aldaketaren berri eman du, hirugarren puntuan.

Laugarren puntuan, 773/2020 Alkatetzaren Dekretua berrestea eskatu dute. Hain zuzen Koronabirusaren pandemiak eragindako "familia-egoerei" aurre

egiteko laguntza ekonomikoak emateko oinarri arautzaileak zehaztu eta alarma egoera onartu zituen apirilaren 30ean.

Uxue Loinaz, EH Bilduko zinegotziak alderdiaren azalpena gehitu dio puntu horri. Bat egin dute dekretua berrestearrekin, baina diru-laguntza lerro hori argitaratu eta komunikatzeko udal gobernuak emandako hainbat pausurekin "desadostasuna" agertu du. Alkateak argitu du asteazkenaz geroztik diru-laguntzen informazioa etxetik etxera banatzen ari direla, eta hitzartze gehiagorik gabe, bozketa egin dute. Aldeko hamalau bozkek (ELOP, EAJ eta PSE-EE) eta hiru abstentziorekin (EH Bildu) berretsita geratu da.

A-12 Mirentxu HIEren Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren behin betiko onarpena bozkatu dute bosgarren puntuan, eta G4 lurzatiari, ekipamendu asistentzialari eta Atsobakar egoitzari dagokion puntuak

eztabaida sortu du alderdien artean. Gai horrek Jon Martin (EH Bildu) eta Acevedoren (PSE-EE) artean sortutako eztabaidaren ostean, bozketa egin dute, eta aldeko hamahiru bozkek (ELOP, EAJ eta PSE-EE) eta aurkako laurekin (EH Bildu) onartuta geratu da.

Seigarren puntuan Lasarte-Oriako Udalaren diru-laguntzen deialdi publikorako oinarri espezifikoak onartzea aurreikusten bazen ere, mahai gainean utzi dute gaia, "desadostasuna" zuzendu arte.

Bost mozio eta hiru alternatibo

Zazpigarren puntuan, Martxoaren 8ko adierazpen instituzional bateratua aurkeztu dute EH Bildu eta ELOP alderdiek. Koronabirusaren eraginez, bertan behera geratu zen hilabete horretako plenoa eta maiatzekora ekarri dute. Lasarte-Oriara begirako bost puntu zehatz eskatu dituzte, baina mozia proposatu

duten bi alderdiek soilik babestu dute (sei bozka), eta, hortaz, aurkako 11 bozkek (EAJ eta PSE-EE) bere horretan geratu da. EAJ eta PSE-EEK, berriz, Eudel Euskadiko udalen elkartearen testuarekin bat egin dute, eta EH Bildu eta ELOP proposamenaren mozio alternatiboa aurkeztu dute. Alderdi guztiek bat egin dute.

Gai ordenako zortzigarren punturako bigarren mozio bat ekarri du EH Bildu. Jon Martinek aurkeztu du, eta udal kontratazioen "norabide aldaketa" eskatu du, hau da, klausula sozialak ezartzea. ELOP alderdiak soilik babestu du EH Bilduren eskariak, beraz, aldeko sei bozkek eta aurkako 11ekin, ez du aurrera egin.

Mozio alternatiboa jarri du mahai gainean Acevedok, hainbat gai biltzen dituena. Horren bitartez, besteak beste, Eudeli izaera sozial, etiko eta ingurumeneko baldintzak ezarri ahal izateko ikerketa egin dezan eskatu nahi diote, behin emaitza hori eskuartean edukitan, har daitezkeen neurriak zeintzuk diren jakin ahal izateko. Gaiarekiko ikuspuntu ezberdinak plazaratuta, bozketa egin dute, eta aurkako lau bozkarekin (EH Bildu) eta aldeko hamahirurekin (ELOP, EAJ eta PSE) onartuta geratu da mozio alternatiboa.

Udal kanpoko talde baten mozia aztertu dute bederatzigarren puntuan; Gipuzkoako zahar etxeetan dauden adineko pertsonen senideen Gipuzkoako Senideak elkarteara. Bost puntu eskatu zehaztu dituzte, baina proposamenak ez du nahiko babes jaso; EH Bildu eta ELOP taldeen aldeko 6 bozkek eta EAJ eta PSE-EEKen aurkako 11ekin, baztertu egin dituzte elkartearen eskariak. Ez dira, ordea, hurrengo puntura igaro, izan ere, EAJk eta PSE-EEK alternatiboa aurkeztu baitute. Horren bidez, udalak kezka agertu du zahar egoitzetako lan-gatazkarekin eta eskatzen diete gatazka horretan inplikaturako alde guztiekin akordio bat bilatzea, eta Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio greba-

GALDERA ETA ERREGUEN TARTEAN, HERRITARREN GALDERAK ERANTZUN GABE GERATU DIRA

deialdietan parte hartzen duten zentroetan ezarritako gutxieneko zerbitzuak betetzen direla bermatzea. Mozio alternatibo horrekiko desadostasuna agertu dute EH Bildu eta ELOPek, nahiz eta azken alderdi horrek, babesa eman dion, argudiatuz, "ezer babestea baino hobea dela gutxienez zerbait babestea". Hortaz, aurkako lau botorekin (EH Bildu) eta aldeko hamahirurekin (ELOP, EAJ eta PSE-EE) onartuta geratu da.

Hamargarren puntuan bigarren mozio bat aurkeztu du ELOP alderdiak. Lasarte-Oriako merkataritza eta ostalaritza pairatzen ari diren egoerarekin kezkatuta agertu da alderdia, eta "beharrezko" ikusten du Beterrir-Buruntza garapen agentzia egiten ari den lanaz gain, Lasarte-Oriako ekonomia eta gizartea berpizteko "plan espezifiko bat". Hiru puntu eskatu dituzte mozioaren bitartez, eta Jon Antxordokik mozia puntuka bozkatzeko eskaera egin dio Aresi; bigarren puntuarekin desadostasuna agertu du alderdi jeltzaleak. ELOPk onartu egin du puntukako bozketa, hortaz, horrela geratu dira bozkek, puntuaz puntu: lehenengo puntua aho batez onartu dute; bigarrenak, aldeko sei bozka (ELOP eta EH Bildu) eta kontrako 11ekin (EAJ eta PSE-EE) ez du aurrera egiterik lortu. Hirugarrena ere, aho batez onartu dute.

Urgentziaz, hamabigarren puntua

Gai ordenan galdera eta erreguen tartea geratzen bazen ere, horri heldu aurretik, beste puntu bat onartu dute "urgentziaz" (aho batez onartu eta gero): herriko tabernarien mozia.

Nahasmen handia sortu du gai honek, izan ere, alkateak azaldu du tabernariak aurkeztutako mozia bere horretan ezin daitekeela exekutatuta, horrela, mozia bere horretan bozkatu beharrean, "asmoen aitortza" bat mozioan eskatzen diren neurriak nola exekutatuta lantzeko konpromisoa bozkatzeko proposatu dio udalbatzarrari, baina hori ezinezko izan zaie, mozia aurkeztu dutenak udalbatzarrean ez zeudelako. Nahastea argitzen saiatzen ari ziren bitartean, herriko tabernari bat agertu da udalera, eta alkatearekin hitz egin ostean, mozia bere horretan bozkatzeko erabaki dute. Horrela geratu da bozketa: aldeko bederatzik bozka (ELOP, EAJ eta EH Bildu) eta 8 abstentzio (PSE-EE), hortaz onartuta geratu da.

"Kanpo ikerketa independentea" eskatu du GuraSOS taldeak

Arkaitz errekarera gerturatutako URAko ikuskatzaileari lehen unean sartzea debekatu ziotela ezagutarazi du taldeak

Txintxarri

Joan den asteburuan Zubietako erraustegitik behera doan Arkaitz errekaran ehunka animalia hilik agertu zirela salatu zuen Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak eta Uraren Euskal Agentzia (URA) gertatutakoa ikertzen ari da. Horren aurrean Gipuzkoako Hondakin Kontsultazioak ohar bat zabaldu zuen erraustegiak ubidera isuriak egitea ukatuz, GuraSOSek gezurtatu zuena.

GuraSOSek gertakari horretan sakondu du beste ohar batean. Jakinarazi duenez, maiatzaren 9ko arratsaldean Gipuzkoako Foru Aldundiko basozaina eta URAko ikertzaile bat errauste plantara joan ziren, bizilagun batek Larrialdietako telefonora egindako dei batean hildako arrainen berri eman ondoren. Zaindaria, ordea, ez zien lehen



Zubietako erraustegia. EAM

unean sartzen utzi. Hainbat dei eta itxaronaldi luze baten ondoren, baimena eman zien. Taldeak salatu duenez, oztopatzea "legez kanpokoa" da eta "arau hauste larria" da, 2.000 eta 200.000 euro arteko zigorra eta bi urtez azpiegitura ixtea ekar dezakeena.

"Datozen egunetan isuriari buruzko datu teknikoak emango ditugu".

Hori horrela, uste dute GHKren azalpenek "zalantza salatzaileak handitu" baino ez dituela egin, enpresaren eta erakundearen aurka. Horregatik, Asensio diputatuak, bere kabuz edo Markel Olano diputatu nagusiak eskatuta, dimisioa eman beharko lukeela; eta lehenbailehen azalpenak emateko eskatu diote Olanori.

Horrez gain, "kanpo ikerketa independentea" egiteko eskatu dute Asensioaren "interes gatazka" eta errauste plantaren ingurumen eta kontratu "ilegaltasuna" aztertzeko, baita behin behineko itxiera ere. Probaldia abiarazi zutenetik azpiegiturak izandako bigarren ezbeharra dela gogorarazi du taldeak eta galdera bat egin:

Ildo beretik, Erraustetaren Aurkako Mugimenduak ere bere irakurketa egin du. URAko kontrolekiko "itxaropen handirik" ez dutela dio mugimenduak, izan ere, "EAEko eta Gipuzkoako agintariak soka motzetik kontrolatutako erakundea" baita.



Hainbat herritar Xirimiriren aldeko ekitaldi batean. Argazkia artxibokoa da. TXINTXARRI

Xirimiriren aldeko ekintza batean bost pertsona identifikatu dituzte

Bost herritar horietatik hiru, "antolatzaileak" zirelakoan, eta beste bi, poliziak grabatzeagatik identifikatu dituzte

Txintxarri

Zenbait herritar pasean atera ziren maiatzaren 15ean, ostirala, arratsaldeko zortzietan, Xirimiri elkartearen aldeko aldarriekin. Hogei lagun baino gehiago batu zirenez deialdira, manifestaziotzat hartu zuen ekimen hori

Ertzaintzak, eta bost lagun identifikatu zituen: hiru, "antolatzaileak" zirelakoan, eta beste bi, poliziak grabatzeagatik. Hori egin eta gero, aurrera jarraitzen utzi zieten. Albistea berehala zabaldu zen sare sozialetan.

Elkarlanean dihardugu.

Pertsonen bizitzak hobetzen ditugu.

Garapenerako lankidetzarako euskal eragileak.





Aire zabalean –bi metroko segurtasun distantzia mantendu ezin denean– eta erabilera publikoko espazio itxietan maskara erabili behar dute 6 urtetik gorako herritarrek, derrigorrez, ostegunetik. TXINTXARRI

Fase berri baten atarian

Ondo bidean, EAEko hiru lurraldeak konfinamenduaren arintzearen hurrengo fasera igaroko dira maiatzaren 25ean, astelehenez; Lasarte-Oria ere bai. Aldaketak ekarriko ditu horrek, baina oraindik guztiak ez daude guztiz zehaztuta. Batzuk bai: maskara erabili behar da

Iñigo Gonzalez Sarobe

Iturri desberdinetatik datorren informazio asko, eta aldaketa ugari egun eta aste gutxitan, konfinamenduaren arintzearen faseak hasi zirenetik batez ere. Eta, astelehenetik aurrera, ziurrenik, gehiago etorriko dira, ondo bidean, fasez aldatuko direlako EAEko hiru lurraldeak, Gipuzkoa barne; Lasarte-Oria ere bai, beraz. Eusko Jaurlaritzak urrats hori egitea proposatu dio Madrili asteen, EAEk horretarako "baldintza eta berme guztiak" betetzen dituela argudiatuz, *Bizi Berri* izeneko planean oinarrituta. Bi aldeak "negoziatzen" ari dira.

FASE ALDAKETA

Eusko Jaurlaritzak asteen iragarri duenez, EAEko hiru lurralde historikoak fasez aldatzea proposatu dio Madrili, nahiz eta

oraindik ez duen baiezkorik edo ezezkorik jaso. Aldaketa eskatu duten autonomia erkidegoen proposamenak ostegun iluntzean aztertu behar zituen aditu talde batek, maiatzak 21, hainbat parametro kontuan hartuta. Zenbaki hau inprentara bidaltzerako unean ez zegoen EAE fasez aldatuko ote zenaren baiezkoko edo ezezko konfirmaturik. Proposamen horretako zenbait neurri xehetu ditu jaurlaritzak; desberdintasunak dituzte Espainiako Gobernuak aldizkari ofizialean jasotakoekin. Egun hauetan iragarri dituzten batzuk jaso ditugu artikulu honetan, eta fase aldaketa posible hori baino lehenagoko batzuk ere bai.

MUGIKORTASUNA

Probintzien arteko joan-etorriak "arrazoi sozioekonomikoengatik"

soilik baimenduko ditu Jaurlaritzak hurrengo fasean ere. Hau da: lanera edo medikuarenera joateko mugitzea posible izango da, baina inola ere ez kirola egiteko, aisialdirako edo kultur jardueretarako. Probintziaren barruan, bai, mugitu daiteke honezkerok. Fasez aldatzean posible izango da hori egiten jarraitzea, eta mugakide baina probintzia desberdinetakoak diren herrietara joatea ere bai.

EAE lehen fasera igaro zenean, harrabotsa sortu zuen jaurlaritzak ezarritako muga batzuek. Esate baterako, hamar pertsonara arteko bilerak ezin egiteak espazio itxi zein aire zabalean, tabernetako terrazetan ez bazen. Madrili egindako proposamen horretan, fasez aldatzekoan, "azalpenak" eskatu dizkio, eta galdegin legez arautzea nola egin daitezkeen bilera horiek.

Elkarte gastronomikoak zabaltzea baloratzen ari da Lakua, edukiera erdira mugatuz.

OSTALARITZA ETA DENDAK

Tabernek eta jatetxeek lokal barruan ere bezeroak hartu ahalko dituzte bigarren fasean, baina establezimendu barruko mahaletan eserita eta higie eta distantzia neurriak mantenduz; inola ere ez barran eta zutik. Espainiako Gobernuak %40ra mugatu du edukiera; Lakuak, berriz, %50era igo nahi du portzentaje hori, "nahasketak saihesteko". Terrazak jartzeari buruzko neurrietan, aldaketarik ez: mahaien erdiak gehienez, eta hamar pertsona horietako bakoitzean asko jota, bi metroko distantzia gordeta.

Denda eta komertzio txikiek bezeroak artatu ahalko dituzte lokal barruan. Jaurlaritzak proposatu du %50eko edukiera ez gainditzea, eta maskara erabiltzea. 65 urtetik gorakoentzat lehenagoko ordutegi bat eskaintzen jarraitu beharko dute merkatariek. 400 metro koadro baino gehiagoko azalera duten saltoki handiek ere ateak zabaltzea ahalko dituzte. Madrilek zehaztu du ezingo dela edukieraren %30

OSTALARIK ETA DENDA TXIKIEK LOKAL BARRUAN BEZEROAK ARTATZEN HASI AHALKO DUTE

gainditu gune komunetan, eta %40 establezimendu bakoitzean; jaurlaritzak edukiera maximoa erdira mugatzea proposatu du.

KIROLA ETA PASEOAK

Konfinamendua arintzearen 2. faserako prestatu duen txostenean, Espainiako Gobernuak zehazten du 70 urtera arteko pertsonen eguneko edozein ordutan egin ahalko dutela kirola, 10:00etatik 12:00etara eta 19:00etatik 20:00etara salbu. Paseoekin ere, berdin. Horrek esan nahi du dagoeneko barneratu ditugun ordu-tarte horiek ezabatu egingo lirakeela: 06:00etatik 10:00etara eta 20:00etatik 23:00etara. Eusko Jaurlaritzak neurri hori aplikatu nahi du EAEn ere. Zehazteke dute oraindik ordutegi berezi bat mantenduko ote duten behar bereziak dituzten pertsonentzako eta haurrentzako.

KULTURA

Jaurlaritzak ekainaren 1ean hasi nahi du kultur jarduerak programatzen. Museo, kultur etxe, antzoki, zinema eta antzeko espazio itxien %50eko edukierarekin ireki, eta espazio irekietan 500 lagunentzako edukiera maximoa ezarri, publikoa eserita, eta distantziak gordeta.

Fase aldaketarako honako neurri hauen berri eman du Madrilek aldizkari ofizialean: liburutegietan, adibidez, maileguak egin ahalko dira ordenagailua erabilita, eta liburuak kontsultatu ere bai,

edukieraren herena gainditu gabe. Ikusteke dago noiz zabalduko duten Lasarte-Oriako Udal Liburutegia; momentuz, iragarri du ekainaren 15era arte luzatu duela maileguak itzultzeko epea.

HEZKUNTZA

Eusko Jaurlaritzaren asmoa zen maiatzaren 18an bueltatzen hasia ikasleak geletara, baina erabaki horrek "ziurgabetasun juridikoak" sortzen zituela onartuta, astebetetz atzeratu du azkenean. Hezkuntza Sailak Madrili eskatu dio DBH4, Batxilergoko 1 eta 2 eta Lanbide Heziketako gradu guztietako ikasleak bueltatzea. Dena den, Lakuak "autonomia" eman die zentroei itzulerari buruz erabakitzeko. Lasarte-Oriako Oriarte institutuan, esate baterako, 2. Batxilergoko ikasleek ekainaren 1ean berrekingo diete saio presentzialei, astelehenez.

Asteon agindu bat kaleratu du Lakuak: maila guztietako irakasleek "gradualki" itzuli beharko dute ikasgeletara, beranduenez, ekainaren 5erako. Sindikatuak ez daude ados Hezkuntza Saila egiten ari den "aldebakarreko" bidearekin; adierazpen bateratu bat bidali diote, klaseetara bueltaren nondik-norakoak elkarrekin adosteko.

EGOITZATAN BISITAK

Ezaugarri desberdinetako egoitzatan bizi diren egoiliarak presentzialki bisitatu ahal izatea –adinekoen erresidentziak kasu ere negoziatzen ari dira. "Pertsona eta egun bakoitzeko bisita bat, gutxienez". Zentroarekin adostu beharko dira bisitak, eta aurrez egoera baloratu. Gipuzkoako Foru Aldundiak, esate baterako, aukera hori hirugarren fasean ematen hasia aurreikusten du, ekainaren 8tik aurrera –edo beranduago, pandemiaren bilakaeraren arabera erabakitzen delako faseetan aurrera egitea edo ez–. Hemezortzi hilabeteko plan bat diseinatu du egoitzerako. Ikusteke dago zer gertatuko den neurri horrekin.

MAIATZAREN 11TIK EZ DUTE KASU BERRIRIK EGIAZTATU HERRIAN, OSAKIDETZAREN DATU OFIZIALEN ARABERA

MASKARAK

Fasez aldatu baino lehenago eman du agindu hau Espainiako Gobernuak. Maiatzaren 21etik aurrera, osteguna, 6 urtetik gorako lasarteoriatarrek maskara erabili behar dute aire zabalean –bi metroko distantzia mantendu ezin dutenetan– eta erabilera publikoko espazio itxietan. Maskarek higienikoak edo terapeutikoak izan beharko dute, ahoa eta sudurra estaliz. Arnasa hartzeko arazoak dituzten pertsonak, adibidez, ez dituzte jantzi beharko. 3 eta 5 urte arteko umeentzat, "gomendagarria" da artikulu babesgarri hori erabiltzea, baina ez derrigorrezkoa.

HAUTESKUNDEAK

Iñigo Urkullu lehendakariak Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak deitu ditu aste honetan bertan, EAEko aldizkari ofizialean, dekretu bidez. Uztailearen 12an egingo dira bozak, igandearekin, koronabirusak eragindako osasun krisiak hori egitea ahalbidetzen badu behintzat.

Alderdiek maiatzaren 27rako aurkeztu beharko dituzte hautagaitzak. Udalerriek ekainaren 13tik 17ra bitartean zozkatuko dituzte hauteskunde mahaia, eta kanpaina ekainaren 26an hasiko da, ostiralez.

KORONABIRUSA

Arestian esan bezala, arintzearen erritmoa pandemiak berak markatuko du, ez beste inork. Maiatzaren 20ko EAEko datuak hauek dira: 19.146 kasu positibo, 16.965 sendatu eta 1.483 hildako –asteazkenean, hiru gehiago–. Lasarte-Oriako ez dute kasu berririk atzeman azken egunetan. Azkena maiatzaren 11n egiaztatuta zuten; neurketak egiten hasi zirenetik, 49 pertsonari eragin die Covid-19ak gurean. Zenbait egunetan ez da posible izan herriz herriko daturik lortzea, jaurlaritzak irizpidea aldatu zuelako maiatzaren 14an, eta informazio hori ez eman, baina atzera egin zuen bi egun beranduago. Jaurlaritzak fasez aldatzea argudiatzeko aipatu duen beste indikadore bat: oinarritzko birsorkutza-tasa edo R0 –persona batek zenbat gehiago kutsatuko dituen, batez beste– bat baino gutxiago izatea. Osakidetzaren datuen arabera 0,69koa zen tasa hori –maiatzaren 20an–.



lazgo sanpedroen helduen txupina, ostiral arratsaldekoa, Okendo plazan. Aurten ez da horrelakorik egongo. TXINTXARRI

San Pedro Jaiak, bertan behera

Festen batzordea osatzen duten alderdi guztiek "aho batez" erabaki dute aurtengo sanpedroak ez ospatzea: "Normaltasun berrira iristeko bermerik ez dago ordurako, eta, ailegatuta ere, ez dakigu zer nolako baldintzak ezarriko dizkieten festa ekitaldiei". San Pedro eguna ekainaren 29a da, eta, normalean, egitarau ofiziala egun bat lehenago hasten da, uztail hasieran bukatzeko. 2020. urtean, ordea, ez da horrela izango.

Espainiako Gobernuak martxoaren 14an dekretutako Aleria Egoerak jaien antolaketa "goitik behera" aldatu zuela azpimarratu du udalak, eta Festen batzordea harremanetan jarri zela jaiak antolatzen dituzten eragileekin, egoera baloratzeko. "Sanpedroak jai oso sozialak dira, eta, horregatik, programari ekarpen garrantzitsuak egiten dizkieten iritzia zein zen jakin behar genuen". Atera zuten ondorioetako bat izan zen "ezinezkoa" izango zela bermatzea sanpedroak betiko moduan eta betiko datetan ospatzea; posible ikusi zuten zenbait jarduera beranduago ospatu ahal izatea, zenbait eragilek aukera hori jarri zutelako mahai gainean.

Hortaz, Lasarte-Oriako Udalak ez du baztertzen, "beharrezko

baldintzak betetzen direnean", festetako "jarduera tradizional batzuk" ospatu ahal izatea. Ez du zehaztu zeintzuk izan daitezkeen horiek. Martxo hasieran ekin zien 2020ko sanpedroak prestatzeko lanei, eta dirulaguntzen deialdia eta kartel lehiaketa martxan jarri zuen. Jaiak bertan behera utzeko erabakia hartu badu ere, zehaztu du diru partida bat gorde nahi duela aurtengo aurrekontuetan, festa-jardueraren bat egin ahal izateko. "Neurri horren helburu nagusia izango da gure espazio publikoak biziberritzea, merkataritza eta ostalaritza sustatzeaz gain".

Sorgin Jaiak ere, bertan behera
Sorgin Jaiak antolatzen dituen batzordeak duela ia hilabete iragarri zuen jai alternatiboak ez zituela "betiko moduan" ospatuko aurtengo bertan behera utzi dute ekain amaierarako prestatzen ari ziren egitaraua. "Gurea ez ezik, herritar guztien segurtasuna eta ongizatea bermatu nahi ditugu. Hori da

DIRU PARTIDA BAT GORDEKO DU UDALAK 2020KO AURREKONTUETAN

SORGIN JAIK: "ELKARREN ARTEKO ZAINZA ERDIGUNEAN JARTZEKO UNEA DA"

arduratsua izatea, eta, horregatik, prest gaude erantzukizuna gure gain hartzeko". Nabarmendu dute momentua dela "elkarren zaintza erdigunean" jartzeko. "Koronabirusak eragindako egoerak lezioren bat eman badigu, hori izan da". Beste mota bateko ekintzak eta beste garai batean nola egin aztertzen hasi dira, herritarrei parte hartzeko bide desberdinak irekiz, Interneten eta sare sozialetan bereziki.

Konfinamenduaren fase zorrotzenez, arintze urratsei ekin aurretik, zenbait auzotan ospatu dituzte herriko festak. Iñigo de Loiola kaleko bizilagunek, esate baterako, San Pedro Window ekitaldia egin zuten apirilaren 19an, igandearekin. Bakoitza bere leiho edo balkoira atera, eta festa ederra egin zuten, koloretako blusak soinean: txupinazoa, danborrada, bertsolariak, trikitilariak, musika, asteburu horretan berez Espainiako Kopako finala jokatzen zenez Realta eta Athletic taldeen banderak... Ikusteke dago hemendik ekain amaierara arte zer gertatzen den, baina festen egitaraua normaltasunez ospatu ezingo bada ere, ziur ideia bat baino gehiago darabilte buruan honezkerok.



Itxialdia arintzen doan heinean, taldeko jarduerak berreskuratzen joan dira Atsobakarren, horietako batzuk atari zabalean, segurtasun neurriak errespetatuta. TXINTXARRI

Txarrenetik "onik" atera da Atsobakar

Koronabirusek nork kutsatu aukeratzen ez badute ere, adinekoak izaten dira halakoen aurrean zaurgarrienak. Atsobakar zahar etxean hiru kasu izan dituzte langileen artean, baina egoiliarrik ez du eragin COVID-19ak. Etor zitekeenerako prest, egoerari nola aurre egin dioten kontatu dio TXINTXARRI-ri bertako zuzendari Inmaculada Concepción Lorak

Maitane Aldanondo

Zurrunbiloaren erdian egon dira zahar etxeak azken asteotan. Albiste txarren protagonista izan dira hainbat, baita kezka askoren iturburu, koronabirusak gehien bat adinekoak eragin eta kolpatu baititu. Egun zailak bizi izan dituzte Atsobakarren, baina ez dute krisiaren alde ilunena ezagutu. Hasieran hiru positibo izan zituzten langileen artean, baina neurriak hartu, mugak ezarri, eta berririk gabe gainditu dute egoera. Pandemiaren lantzena igarota, testuinguru berri honetan pixkanaka

egunerokora bueltatzen ari dira. Hala ere, oraindik atek itxita dituzte, ezin da eguneko zentroa baliatu ezta egoiliarrei bisita egin ere. Ondo bidean, astelehenean helduko den bigarren fasearekin mugak arinduko dituzte, eta eten luzearen ondoren, aurrez aurre, hezur-mamitan, berriro senideek elkartzeko aukera izango dute, maskara, eskularru eta hidrogelekin bada ere.

Martxo erdialdetik egoitza barruan egoera nolakoa izan den azaltzeko, Atsobakar egoitzako zuzendari Inmaculada

Concepción Lorearekin harremanetan jarri da TXINTXARRI. Arduraduna izateaz gain, lantaldeko erizaina ere bada. Aurretik halako epidemiarik bizi izan ez badu ere, "pixka bat prestatuta" bazegoen, lan asko eginga baita epidemiologian, infekzioa dutenekin. Horregatik,

HIRU LANGILE KUTSATU ZITUEN COVID-19AK PANDEMIAREN HASIERAN. GERORA EZ DA KASURIK IZAN

ahal izan duen heinean, eskarmentu hori baliatu du, besteak beste, langileak prestatzeko eta formakuntza emateko. "Norbera babesteko ekipamendua (NBE) nola jarri irakatsi eta etor zitekeenerako prestatu ditut, zer gerta zitekeen, zeri aurre egin geniezaiokeen... Guardia inoiz jaitsi ez zezaten ahalegindu naiz, oinarritzko neurriak behin eta berriro azpimarratuta: Higienea, segurtasun tartea, eskuak garbitzea, maskara ondo jarrita eramatea...". Ildo beretik, protokoloak eguneratu ahala

zabaldu ditu eta ahalegindu da lantaldeak horiek ezagutzen eta kontuan hartzen.

Administrazio publikoek neurriak hartu aurretik, Atsobakar kudeatzen duen DomusVi enpresaren jarraibideak ezarri zituzten –egoitzaren jabea Gipuzkoako Foru Aldundia da-. "Lehen unetik gerta zitekeenaren berri eman digute eta argi dago ez zeudela oker", gogoratu du Lorak. Enpresak gestionatzen dituen beste egoitza batzuen erreferentzia izan dute beraien jarduna erabakitzeke, izan ere, haietako batzuetan egoiliarrik kutsatu baititu COVID-19ak. "Batzuetan 'mamorroa' sartu da eta haiek egindakoa kontatu ziguten, guk zer egin behar ez genuen jakiteko, hori ekiditeko. Taldean elkarri babesa eman diogu eta onik atera gara".

Sustorik ez zaie falta izan, hala ere. Pandemiaren hasieran, hiru kutsatu izan zituzten langileen artean. Sukarra zutela esanez deitu ziotela gogoratu du zuzendariak eta bere erabakia argia izan zela: "Zure etxean geldituko zara". Hala, koronabirusaren "sintoma oso agerikoak" izan aurretik, etxean isolatu zituzten eta gerora, positibo eman zuten proban. Gertakari horren ondorengo bi asteetan "tentsioan" egon zirela onartu du Lorak, horiek igarota, ordea, egoera lasaitu egin zen. Langileei nahiz egoiliarrei egindako test guztiak negatiboak izan dira, eta oporrak ordezkatzeko hartu dituzten langile guztiei egin diete proba.

Lau egoitza, bakarrean

Emaitza baikor horretan, hein batean, Atsobakar zentro txikia izateak eragin du. Guztira 56 erabiltzaile dituzte eta 90 bat laguneko lantaldea; eguneko zentroan 25 pertsonentzako tokia dute, baina denek zortzi aste daramatzate etxean. Tamainak zeresanik izan badezake ere, antolakuntzan egindako aldaketak erabakigarriak izan dira.

Martxoaren 13an bertan behera utzi zituzten bisitak eta

LAU ZATITAN BANATU DUTE ZAHAR ETXEA ETA INORK EZIN DU BERE EREMUTIK BESTE BATERA JOAN

biharamunean atek itxi zituen eguneko zentroak. Egoeraren berri emateko familiekin elkartu zen zuzendaria eta e-postaz jakinarazi zien ezingo zituztela egoiliarak ikusi. "Familiek beldurra zuten ezin zutelako etorri", gogoratu du Lorak. Hutsunea bete eta harremana ez galdetzeko, bisitak bideo deiekin trukatu dituzte asteotan.

Egoera kontrolpean izateko, eraikina lau modulutan banatu zuten eta zentro txikiak balira bezala funtzionatu dute. Bakoitzean teknikari bat -fisioterapeuta, okupazio terapeuta, psikologoa eta gizarte langilea- eta langile talde bat egon dira. Hala, ez langileek ezta erabiltzaileek ere ezin izan dute zonalde batetik bestera pasa; kutsaturen bat balego, harekin harremana egondakoak identifikatuta izateko. Teknikari bakoitzak hartu du bere moduluko ardura, segimendu deiak egin, formakuntza eman eta oinarritzko neurriak betearaziz.

Era berean, talde jarduerak murrizten joan ziren, lehenik, modulu bakoitzaren barruan eta talde txikiagoetan eginda, eta ondoren, erabat baztertuta, egoiliarak euren geletan isolatzeko erabakia hartu behar izan baitzuten. Egunaren gehiena bertan igaro dute, otorduak ere gelan egin dituzte jangelak itxi zituztenetik. Irteteko aukera izan dute, "modu ordenatuan", eta erabiltzaile autonomoek paseora irten ahal izan dute ibilbide mugatuagoan eta higiene neurriak jarraituta.

Horrez gain, aldiro azpiegitura osoa desinfektatu dute. Lehenengo Domus Vik kontratatutako enpresa batek garbitu zuen, eta hortik aurrera, astean behin suhiltzaileek barruko zonalde komunak, korridore eta jangelak desinfektatu dituzte; kanpoaldea eta barruko patioa, berriz, udalak ostiralero bidaltzen duen langile baten ardura izan da.

Unean uneko egoera azaldu

Orain arteko antolakuntza mantentzen dute eta oraindik ez dituzte jangelak erabiltzen, baina joan den astean talde ekimenak berreskuratzeari ekin zioten, beti ere, bost lagun baino gutxiago elkartuta eta segurtasun tartea gordeta. Lorategira ateratzen dira eta erabiltzaileekin

"LANGILEAK KASU TXARRENEAN JARRI DITUT, BATEZ ERE, BETI ERNE IBIL DAITEZEN"

banaka paseatzen dute. "Jainkoari eskerrak lorategi handia dugu!", aitortu du Lorak.

Norbera bere gelan egon badira ere, jarduerak egiten jarraitu dute, hala nola, egunkaria irakurri diete korridoretik edo bingoan aritu dira. Ordu luzeak arintzeko ere familia askok telebista ekarri diote ahaideari, desinfektatu ondoren erabili ahal izan dutena. Era berean, tabakoa edo bestelakorik nahi zutenei langileek beraiek erosi, garbitu eta eman egin diete.

Egoerak egoera, Loraren iritzi, erabiltzaileek "ez dute horren gaizki pasatu" nahiz eta "estutasun unerren bat izan zen, ezin zutelako irten". Hori bereziki autonomoak direnen kasua izan da, erosketaren bat

edo beste egitera irteten zirenak, aukera mugatu egin baitzieten. Psikologoak hartu du eremu hori, zuzendariak argitu duenez, "beharrezkoa ikusten genuen independenteak direnei egoera azaltzea". Uneoro gertatzen ari zena kontatu diete "gezurrik esan gabe" eta hainbat erabakiren berri emanda, "testa egingo geniola, lantaldeari egin diogula, emaitzak...".

Langileek, berriz, "antsietate handiarekin" bizi izan dutela dio arduradunak. "Sukarra dut, sukarrak ez dut... ibili dira". Egoiliarrekin bezala, beti egia esatea erabaki du, zeri aurre egin ziezaioketen argi izan zezaten. "Kasu txarrean jarri ditut, batez ere, beti erne ibil daitezten. Beraiekin elkartu naiz, zalantzak bazituzten bulegora etorri dira...". Hasieran "beldurra" zuten, baina gutxika kontzientzia hartzen joan dira. "Jabetu dira eurak direla 'mamorroa' ekar dezaketena. Erabiltzaile guztiak negatiboak badira, 'zomorroa' kanpoan dago; eta eurak dira kalean beraien burua zaindu

TEXAS LASARTEARRAK ETA ELKARTASUN PUNTADAK EKIMENAK BABES MATERIALA HELARAZI DIETE

behar dutenak hura hona ez ekartzeko".

Lasarteoriatarren laguntza

Aste zail hauetan material falta gainditu beharreko beste oztopo bat izan da. Horri aurre egiteko jaso duten herritarren babesa eskertu nahi izan du zuzendariak. Hasierako zoramenean babes baliabideen falta orokorra izan zen. Enpresak hornitu zituen erositako zenbait materialekin eta Aldundiak ere aldian-aldian behar izan dutena helarazi die. "Ez dugu nahiko genukeen adina izan, baina ez gara inoiz babesik gabe egon", zehaztu du Lorak.

Egoera horretan, Texas Lasartearra kirol taldeko presidente Haritz Hernandez beraiekin harremanetan jarri

zen apiril hasieran zer behar zuten galdetzeko. "Oinarritzkoa eskatu egin genien: maskarak, mantalak, hidrogelak, infragorri termometroak... Nik bat lortu nuen denda batean eta beraiek beste lau bidali dizkigute. Bestelako hornitzaile batzuen bidez lortu dituzte. Eskertzekoa da materiala". Guztira, 200 maskara, 20 litro gel hidroalkoholiko, 20 segurtasun pantaila, 40 mantala eta aipatu termometro horiek helarazi zizkieten.

Kirol taldea ez da lagundu nahi izan duen bakarria izan. Lasarte-Oriako Elkartasun Puntadak ekimeneko boluntarioek beraiek egindako maskarak jarri dituzte langileen eskura.

Osasuna zaintzeko balio ez badute ere indarberritzeko lagungarriak diren bestelakoak ere heldu dira Atsobakarreko atarira asteotan. Bonboi kaxak, eskertza mezuak... "Lasarte-Oriako herria oso ondo portatu da gurekin. Ez dut hitzik eskertzeko. Pozik gaude".



Inmaculada Concepción Lora zahar etxeko zuzendaria izateaz gain, bertako erizaina ere bada. TXINTXARRI

Idatzi bateratu bat, krisi egoera azaleratzeko

la 80 enpresak, Lasarte-Oriako Factory Logistika tartean, idatzi bateratu bat plazaratu dute euren egoeraren berri emateko, 'Ez gaitzazue bertan behera utzi' izenburupean. Jardueri eusteko beste modu batean gauzatzea proposatu dute

Txintxarri

Kultur ekoizpen zerbitzuetako Euskal Herriko ia 80 enpresak, Lasarte-Oriako Factory Logistika tartean, idatzi bateratua zabaldu dute koronabirusaren krisiaren ondorioz bizi duten egoera larria azaleratzeko. Kultur ekimen eta ikuskizunak antolatu, kudeatu, hornitu eta aurrera eramateko lan egiten duten profesionalak "udaberriko eta udako behin behinekotasunetik" bizi dira batez ere; beraz, orain lan egiterik ez badute, "urtea galduko" dute, askoren biziraupena kolokan jarritz. "Zein enpresak -batez ere, ETEek, autonomoek eta kooperatiba txikiek -egin diezaioke aurre horri pertsiana itxi gabe?".

Martxoaren 14az geroztik fakturatu ez badute ere, ordaintzen jarraitzen dute, horregatik, Alarma Egoeraren hasieratik eskatu dute bai ikuskizunen atzeratzea bai ekitaldiak kudeatzeko "bestelako dinamikak" martxan jartzea. Era berean, "enpatia" eskatzen diete kultur erakundeei "bizitza pixka bat errazago egin dieten kultura eta ekoizpen zerbitzuetako enpresa horiekiko", eta udalei, aldiz, "kultura eta jaietako aurrekontuak hutsik ez uztea". Alternatiba gisa, proposatu dute "edukiera



Su Ta Gar taldeak 2018ko ekainean jo zuen Lasarte-Orian, jaietan. TXINTXARRI

mugatua duten ekoizpenetan lan egitera doitzea", "ekoizpen deszentralizatuak egitea" eta "bertako artistekin lan egitea".

Hitz egiteko deia

Horrez gain, erakundeei eskatu diete euren ohiko lanari buruzko neurriak iragarri aurretik, beraiekin hitz egitea ekimenak bertan behera ez uzteko asmoarekin. Sinetsita daude osasun arloari egokitutako aukera bideragarriekin eta borondate argiarekin "gure egoerari aurre egiteko plan bat" diseina

dezaketela, eta aldi berean, "auzolan espiritua duen sare bat sortu den artean".

Ikusteke dago zein irizpide ezarriko dituen Eusko Jaurlaritzak udako kultur eta aisialdiko ekitaldiak antolatzeari dagokionez. Bilerak egiten hasi da Eudel EAeko udalen elkartearekin. *Berria* kazetak argitaratu duenez, adostu dituzte "oinarriko aholku batzuk". Adibidez, kaleko zein toki itxietako kultur jardueretan gehienez 250 lagun izatea, eserita, espazioa gutxienez mila metro koadrokoa izanik.

Ekainaren 5era arteko epea, lanak telematikoki bidaltzeko

Literatur lehiaketan oinarriak aldatu ditu udalak, koronabirusak eragindako egoera dela eta

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udaleko Kultura batzordeak moldatu egin ditu 2020ko literatur lehiaketetako oinarriak, koronabirusak eragindako egoera dela eta. Parte hartu nahi dutenek ezingo dituzte

lanak presentzialki aurkeztu Manuel Lekuona Kultur Etxean. Ekainaren 5ean itxiko dute epea antolatzaileek, ostiralarekin, gaueko hamabietan.

Parte-hartzaileek ezingo dituzte lanak presentzialki aurkeztu

kultur etxean, antolatzaileek erabaki baitute aukera ez ematea. Dena den, helduek bidal ditzakete lanak posta zertifikatu bidez. Helbide elektronikoa honetara ere bidali ahalko dituzte idazlanak parte-hartzaile guztiek, gaztetxo zein helduek, ekainaren 5a baino lehen: literatur.lehiaketak2020@lasarteoriasarean.eu.

Udalak bere web orrialdean eskegi ditu lehiaketako kategoria desberdinetan parte hartzeko bete behar diren izen-emate orriak, ondoko helbide honetan:

18. antzerki eta dantza hamabostaldia Lasarte-Oria 2020

ADÍ EGON!!
hamabostaldiaren hasiera **DESFILEA**
maiatzak **25** astelehena
16:00 etatik aurrera...

Irten balkoi eta leihoetara!!

KUKUKA ANTZERKI ETA DANTZA ESKOLA

Hamabostaldi berezi eta oparoa

Datorren astelehenean, maiatzak 25, hasiko da Kukuka eskola antzerki eta dantza hamabostaldia ospatzen. Covid-19ak eragindako krisiagatik, moldaketa batzuk egin behar izan ditu: sare sozialetan eta webean jarriko dituzte ikusgai ikasleen lanak asteartetik aurrera. Hori baino lehen, astelehenean, desfilea, herrian barrena, 16:00etatik aurrera. Leiho eta balkoietara irteteko deia egin diete herritarrei.



ALBOKA ABESBATZA

Musikaz eta kantuaz gozaten

Konfinatuta egonda ere, Alboka abesbatzak ez ditu entseguak alde batera utzi, eta, bakoitzak bere etxetik, jarraitu dute euren sentimenduak musikaren bidez adierazten. Bideo eder bat ere egin dute, beraien YouTubeko kanalean zintzilikatu dutena, Mikel Laboaren *Martxa baten lehen notak* abesti ederra interpretatuz. Esteka, hauex: https://www.youtube.com/watch?v=KRD8QNh4_c&feature=youtu.be.



lazio edizioako diplomak. TXINTXARRI

<http://www.lasarte-oria.eu/-/aldaketak-egin-dira-2020ko-literatura-lehiaketan-oinarrietan>.

Bestalde, udalak gogorarazi du herriko komertzioek parte har dezaketela *Balkoietara* lehiaketan. Sarituek 30 eta 50 euro arteko bonuak jasoko dituzte, Lasarte-Oriako dendetan gastatzeko. Hamabost langile baino gutxiago dauzkaten negozioei aukera eman nahi die udalak ekimenean parte hartzeko, sarituek bertan gasta ditzaten irabazitako bonu horiek.



2021. urtera arte, ez da berriro irudi hau errepikatuko. San Pedro Jaietako pilota txapelketarik ez da izango aurten. TXINTXARRI

Sanpedroetako txapelketarik ez

Intza kirol elkarteko kideek ohiko txapelketa bertan behera uztea erabaki dute. Zalantzas betetako hilabeteen ostean, federazioak herriarteko txapelketa bakarrik jokatu dela jakitera eman die eta hurrengo denboraldia prestatzen hasi dira

Nerea Eizagirre

Hilabetetako zalantzen ostean, Lasarte-Oriako Udalak San Pedro jaiak bertan behera utziko zituela jakitearekin batera, Intza KEK urtero antolatzen duen pilota txapelketa aurten jokatu ez zela baieztatu zuen.

Maiatza erdialdean hasi eta herriko jaietan pilota jaialdi politarekin amaitu ohi da txapelketa. "Oraintxe izen-emate garaia ixtear egongo ginateke, partiden egutegia osatu ahal izateko. Baina zerora gaude. Beraz, ohiko egutegian ezingo da jokatu", jakitera eman zuen Joxe Felix Solano Intza KEko arduradunak duela bi aste.

Udalaren erabakiaren zain zegoen kirol elkartearen orduan eta egun badakite aurten ez dela txapelketarik antolatuko. "Egun bizi dugun egoeran ezinezkoa da martxan jartzea", onartu du Intza KEko arduradunak.

Beraz, hurrengo urtera arte itxaron beharko dute gaztetxoek euren dohainak senide eta lagunez betetako Loidi Barren pilotalekuan erakusteko.

Honez gain, beste zalantza batzuk ere argitu ditu azken bi asteetan kirol elkarteak. Izan ere, denboraldiaren jarraipena ere airean baitzen azkenengoz Solanorekin hitz egin genuenean. Egun, federazioak herriarteko txapelketa bakarrik jokatu dela jakitera eman du. Intza KEK ez du izenik eman txapelketa honetan: "Ez genituen taldea osatzeko pilotari nahikoak". Beraz, aurtengo denboraldiari

PILOTA ESKOLAKO IKASTURTE BERRIA IRAILEAN HASTEA AURREIKUSTEN DU INTZA KE-K

agur esateko garaia iritsi zaio pilota taldeari.

2020-2021 denboraldia prestatzen hasi dira dagoeneko, irailaren 10ean pilota eskolako ikasturtearen hasiera aurreikusten dute, nahiz eta ez jakin pilotalekura noiz itzuliko diren, ezta zein baldintza bete beharko dituzten ere. "Hurrengo fasean pilotalekuan lan egiten utziko digutela uste dut, baina ez dakigu zehazki", onartu du Intza KEko arduradunak.

Itxialdia baino lehen denboraldi berrian moldaketa handirik aurreikusten ez zuela ere aurreratu du Solanok. "Baina egoera ikusita eta jarraitu beharreko neurriak ezartzen dituztenean egunean-egunean moldatu beharko gara. Oraingoz ez dago zehaztuta, beraz ezin dugu ezer aurreratu".

Hala ere, denboraldi berriari aurre egin baino lehen, zintzilik

geratzen den erabaki bati buruz jakitera eman du. Hilabete hauetan entrenamendurik egon ez denez, Intzako kirolariei apirila, maiatza eta ekaineko saioei dagozkien kuotaren ehuneko bat itzuliko zaie, 36 euro. Elkartea gurasoekin harremanetan jarriko da diruaren itzulera kudeatzeko. "Ekaina erdialdea baino lehen egin nahiko genuke", zehaztu du Solanok.

Une lasaia

Hori guztiaz gain, kirol jarduna eten zenean denboraldiko laburpena egin du Intza KEko arduradunak.

"Une lasai batean" zeuden federatutako kirolariak. Infantilen lehiaketa amaitzeko partida bat geratzen zen eta hurrengo fasera igaroko ziren eta seniorrek txapelketa amaitu zuten. Udaberri txapelketan, ordea, 3. kadete mailan Haritza Diaz de Gereñuk eta Pedro Eloseguik final-erdia jokatu behar zuten martxoaren 15ean Aloña Mendiren aurka. Gainera, Solanok azaldu duenez, lau t'erdiko txapelketarako izena ematea egin behar zuten bakarka kadete eta senior mailan eta binaka infantilen mailan.

Kirol ez federatuari dagokionez, Intza KEK jardura gehien zuen hilabetean eten zuten jarduna, baita une "gogobetegarrienean" ere, Intza KEko arduradunaren hitzetan.

Besteak beste, eskola mailako gaztetxoek txapelketa jokatu

behar zuten azken hiruhileko honetan eta gaztetxoak txapelketan aritzeko gogo eta ilusioekin egon ohi direla nabarmendu du Solanok "Denboraldian zehar egindako lana erakusteko modu bat da". Gainera, irailean pilota eskolako izena emateetan eragina duela ere azaldu du.

Ariketa berezirik ez

Halaber, itxialdian pilotariak nola moldatu diren ere helarazi du. Fisikoki etxean lan egin ahal duten arren, lan teknikoa egitea ez da hain erraza ez dela nabarmendu du Intza KEko prestatzaileak, "pilotarekin ezin da etxean jardun".

Federazioak pilotariak etxean lan egiteko bideak bidali zizkien eta senior eta kadete mailako kirolariei berbidali zizkietela ere jakitera eman du. Baina Solanok zehazten duenez, zail da ariketa horiek egin ahal izatea. Izan ere, "pilota gogorrek lan egin behar baita, eskuak samurtu ez daitezten".

Itxialdiaren arintzea areagotu eta egoerak hobera egin bidean, Intza KEK herritarrei animoak bidaltzen dizkie. Era berean, egoera ulertzea, pazientzia jokatzeko eta "guztion hobebeharez ezartzen diren" neurriak betetzea eskatzen die. Azkenik, Intza KEko kideek eskerrak eman nahi dizkiete "etxealdi hau jasagarriago egiten duten pertsoneri eta ezer falta ez dakigun lan egiten duten herritarrei" ere.



Intza KEko kirolariak laster pilotalekuan lanean egotea espero dute. TXINTXARRI



Ostadar SKTKo Saskibaloia taldeak eta prestatzaileak denboraldi hasierako argazkian. OSTADAR SASKIBALOAIA

Baloia berriro hartzeko prest

Ostadar SKTKo Saskibaloia taldeek hurrengo denboraldira arte itxaron beharko dute kantzara itzultzeko. Ez dago data zehatzik eta luzerako joko duela uste dute taldeko prestatzaileek. Hala ere, 2020-2021 denboraldi berria prestatzen hasi dira

Nerea Eizagirre

Nahiz eta entrenamenduak noiz hasiko dituzten ez jakin, Ostadar SKTKo Saskibaloia atala "segituan" martxan egoteko prestatzen ari da, baita 2020-2021 denboraldia prestatzen ere.

"Gogo handiak ditugu berriro ere kantzara lanean egoteko", adierazi du Ostadar SKTKo Saskibaloia saileko arduradun Endika Marrahi, baina arestian aipatu legez, datarik ez dute oraindik.

"Ez dakigu oraindik noiz hasiko garen, gure kirola kontaktuzkoa denez, azkenekoak izango garela uste dut. Zurrumurruek diotenez, irailean ez gara hasiko eta federazioek ez dute oraindik pausorik eman gai honetan", onartu du Ostadar SKTKo arduradunak.

Egoera kudeatu eta denboraldi berria prestatzeko lanean dihardute, ordea. "Entrenatzaileak

bi astero hasi gara geratzen hitz egiteko, eta informazio berria dagoenean ere, kasu batzuetan elkarrekin hitz egiteko deiak burutu ditugu", azaldu du.

Itxialdian zehar zituzten zalantzak pixkanaka argitzen doaz. Euskal Ligako denboraldia bertan behera geratu dela jakin zuten duela hiru aste.

Orduan Gipuzkoako federazioak oraindik ez zien zehaztu eremuko txapelketekin zer gertatuko zen eta Ostadar SKTKo arduradunak federazioak denboraldia amaitutzat ematea aurreikusten zuten. Horrela izan da. "Nire

"EZ DAKIGU ORAINDIK NOIZ HASIKO GAREN. ZURRUMURRUEK DIOTENEZ, IRAILEAN EZ GARA HASIKO

iritziz erabakirik onena da", onartu du Marrahi.

Erabaki honekin batera, saskibaloia taldeek jaitsiera eta igoerarik ez dela egongo ere adostu zuten. Denboraldia bertan behera geratu ezean, saskibaloia taldeak geratzen ziren partidak jokatzeko prest zeudela ere jakitera eman du Marrahi, baita federazioak udan partidak jokatzearen aurka daudela ere. "Nahiz eta aukera oso txiki bat egon, gelditzen diren partidak jolasteko prest egongo lirarteke klubak, jakinda partida guztiak ekainaren 30erako amaituta egon beharko lirartekeela".

Etenaldia indarrean jarri zenean lan talde teknikoak jarraitutako pausoen berri eman digu Endika Marrahi Saskibaloia ataleko arduradunak. Martxoaren 12an entrenamenduak bertan behera uzteko erabakia hartu eta jokalariei, zein gurasoei

fisikoan, esate baterako. Egoera kontuan izanik, kirolariei entrenamendu saio zehatzik ez zaiela ezarri jakitera eman du. "Gaur egun badute informazioa Interneten, aholku batzuk eman ditugu eta bakoitzak hartu du lan hori egiteko erabakia".

Gainera, saskibaloia sailean lantzen dituzten helburuak egoera fisiko onean bakarrik oinarritzen ez direla nabarmendu du. "Kirol arloan lantzen ditugun helburuak gehiago dira, ez dira soilik egoera fisiko onean egotera laburbiltzen, entrenatzaile bakoitzak erabaki du zerri lehentasuna eman talde bakoitzean".

Momentu zailak ere bizi izan dituztela azaldu du, Ostadar Saskibaloia taldeko kideen artean bi kasu eman baitira. "entrenatzaile eta jokalariren bat kutsatu dira eta egun zail batzuk igaro ditugu, baina jada ondo daude eta nahiko lasai gabiltza".

Horregatik, bizi dugun egoera "zailaren" aurrean, Ostadar saskibaloia taldeko kideek herritar guztiei eskerrak eta animoak eman nahi dizkie. "Etorkizuna aurreikusteko modurik onena denok egiten ari garen lana da, aurrera begiratu behar dugu orain arte egin dugun moduan, elkarlanean eta konpromisoz. Herritar guztiei eskerrak eman, eta batez ere pentsatu okerrena pasa dela. Bizi ginen bezain zoriontsu izatea espero dut, animo denei eta eutsi goiari".

informazioa bidali zitzaion. Federazioetatik edo udaletatik jasotako informazio berria dutenean ohar orokorra bidaltzen dute.

Era berean, kirolariekin harremana mantendu eta erronka batzuk proposatu dizkietela jakitera eman du. Azken horiek adin txikiko taldeetan jarraipen handia izan zutela nabarmendu du. "Jokalariei helduenek, berriez, oso gutxi parte hartu dute".

Helburuak

Ostadar SKTKo Saskibaloia saileko arlo tekniko lanean ari bada ere, beste arlo batzuetan geldirik daudela nabarmendu du, alde



Kadete mailako taldea Euskal Ligara igo zen denboraldi erdian. TXINTXARRI

Kirolari profesionalak, deskonfinamenduan

Maiatzaren 4an, konfinamenduaren arintzeari esker, kirolari profesionalak lanari ekin diote berriro, beste baldintza batzuetan. Maialen Chourraut piraguista, Axier Arteaga 'Arteaga II' pilotaria edo Ander Bardaji futbol atezaina izan dira horietako batzuk

Txintxarri

Kirolari profesionalak berriro ere lanean hasteko aukera eman die Gobernuak maiatzaren 4tik aurrera. Maialen Chourraut piraguista, Ander Bardaji eta Iraia Iparragirre futbolariak, Axier Arteaga pilotaria eta Lorena Zabala izotz-hockey jokalaria dira egun maila horretan lehiatzen diren herritarrek, baina egoera ezberdinak bizi dituzte.

Axier Arteaga, *Arteaga II* pilotariak aukera izan bezain pronto hasi nahi zuen pilotakadak ematen. Baina, baimen arazoak medio, maiatzaren 13an hasi behar izan du lanean eta Usurbilgo pilotalekuan, gainera. "Maiatzaren 4tik baimena genuen



Axier Arteaga pilotaria jokoan artxiboko irudian. TXINTXARRI

pilotariak laguntzaile batekin entrenamenduak hasteko eta enpresako beste pilotariak egun horretan itzuli ziren pilotalekuetara. Lasarte-Oriako

Udalari baimena eskatu nion, maiatzaren 11an hasteko aukera izango nuela uste nuen, baina azkenean ukatu egin zidan", jakitera eman du pilotariak.

Usurbilgo Udalarekin harremanetan jarri zen, orduan. "Aranguren aginarrak Usurbilen entrenatzen zuela jakin nuen eta han baimena eskatu nuen. Ez zidaten arazorik jarri".

Pilotariak lehiatzeko gogoekin daudela jakitera eman digu herritarrek, baina "enpresek ez dute argi ikusten oraindik partidak jokatzeko". Horregatik, gutxienez, ekaina erdialdera arte pilota partidariak egongo ez dela uste du Arteagak.

Futbol denboraldiaren itzulera ere aurreikusten da data horietan. Eta bigarren mailako Huesca SD taldea eta horrekin batera, Ander Bardaji atezaina lanean ari dira ordurako prest egoteko.

SD Ejean denboraldia hasi ostean, egun lehen taldearekin ari da entrenatzen herritarra.

Maiatzaren 11ko astean bakarka egin zituzten saioak futbolariak eta aste honetan multzo txikietan ari dira lanean.

Data zehatzik ez

Gainerako kirolariak ez dute lehiaketara itzultzeko data zehatzik, eta kasu batzuetan gainera, ez dira entrenamenduetan hasi ere.

Maialen Chourraut piraguistak, esate baterako, maiatzaren 4ean hasi zituen entrenamenduak La Seu d'Urgellen.

Lehen astean, urari eta piraguari ohitzeko lanak egin zituen palistak; aste bete beranduago, ordea, bere ohiko entrenamendu lekuan, La Segreko kanal olinpikoan lanean hasi zen.

Iraia Iparragirre futbolariak, berriz, ez daki noiz itzuliko den Zubietako zelaira. Iberdrola Liga bertan behera geratu ostean, Real Sociedad taldeak oraindik ez die zehaztu jokalariei saioen hasiera datarik.

Gasteizko Sumendi izotz-hockey taldeko Lorena Zabala herritarra ere egoera berean da.

Martxoan itxialdiarekin batera ligari amaiera eman zioten. Abuztua erdialdean hasi ohi dute denboraldi-aurrea lan fisikoarekin eta irailan izotzean sartzen dira liga hasiera prestatzeko.

Baina aurten egoeraren arabera moldatu beharko direla aitortu du Lasarte-Oriako jokalaria. "Gure gainera, kontaktuko kirola da eta, beraz, guztia airean dago".



Urriaren 4ra arte itxaron beharko dute Lasarte-Oriako, zein inguruko BTT zaleek. TXINTXARRI

BTT Lasarte-Oriaren data aldaketa, urriaren 4a

Data berrian parte hartu ezin duten kirolariak ekainaren 20ra arte dute izen-ematea balio gabetzeko

Txintxarri

Koronabirusak eragindako egoerak ekarri du hainbat kirol ekitaldi bertan behera utzi behar izatea edo beste data batera aldatzea. Hori gertatu da Lasarte-Oriako BTTarekin. Antolatzaileek udazkenean egitea erabaki dute, urriaren 4an, igandearekin.

Data berri horretan parte hartu ezin duten kirolariak ezeztatu dezakete izen-ematea, ekainaren 20ra arte. Mezu bat bidali beharko dute info@flygroupnet.com helbide

elektronikora. Hainbat gauza zehaztu behar dituzte testuan: txirringularen izen-abizenak eta NAN zenbakia. Horrez gain, BTT Lasarte-Oria izen-ematearen itzultzea kontzeptua idatzi behar dute. Antolatzaileek ordaintzeko erabilitako kontura bueltatuko dute dirua.

Izen-emateak apirilean agortu ziren, baina baliteke berriz irekitzea ekainaren 21ean, baldin eta parte-hartzailearen batek baja ematen badu.



Iñaki Altuna eta Lorena Zabala izan dira Auzolan eta Kirolari Onena Sariak. OSTADAR SKT

Itxialdia egonagatik ere, Ostadar SKTk kirolariari aitortza egin die

Jaialdia ospatu ez arren, Ostadar SKTk denboraldi amaierako sariak banatu ditu sare sozialetan

Festa giroan amaitu ohi du denboraldia Ostadar SKT-k, baina koronabirusak ez die ez zelaietan ezta handik kanpo ere betiko moduan bukatzen utzi. Ospakizun gabe bada ere, sariak berdin-berdin banatzea erabaki dute. Hala, 2019-2020 denboraldiko jokalariei jatorreari sariak, Kirolari Onena eta Auzolan Saria aintzatespenak nork jaso dituen jakinarazi dute bere webgune eta sare sozialetan.

Aurten Kirolari onena Lorena Zabala izotz hockey jokalaria izan da.

Mahai gainean hainbat herritarren izenak zituztela argitu dute arduradunek eta "lana, konstantzia eta antzintasuna" balioetsi dituztela.

Zabala Txuri Urdin izotz hockey taldean hasi zen, eta handik, Gasteizko Sumendira joan zen. Hamar denboraldi daramatza kategorია gorenarekin eta bi munduko txapelketatan parte hartu du. "Zorionak Lorena. Zu bezalako kirolariak erreferente bat zarete gainontzekoentzat".

Auzolan saria, berriz, Iñaki Altunari eman diote, tenisa

sustatzeko egindako lana eskertzeko.

Ostadar Tenis Eskolako entrenatzaile, ia mende laurdenez Michelingo tenis pistetan herriko ume, gazte eta helduei "tenisaren sekretuak" irakasten aritu da "ilusioz eta seriotasunez".

Bideoak

Sari orokorrean gain, atal ezberdinetako Jokalariei jatorreari sariak ere argitaratu eman dituzte bideo bitartez.

Talde bakoitzeko prestatzaileek kirolarien izenak eta zergatiak eskaintzen dituzte grabaketan. Ostadar SKT nabarmandu duenez, "entrenatzaile batzuei oso zaila egin zaie izen bat ematea talde askotan bat baino gehiagok merezi duzelako".


Sariak banatuta orain, aldizkaria argitaratzea besterik ez da falta denboraldiari guztiz agur esateko.

Bitartean, Kirol elkarteak eskerrak eman eta agur esateko prestatu duen denboraldiko bideoa ere ikus dezakete kirolariak. "Bideo bat egin digu familia handi honetan parte hartzen dugunok, espero dugu gustatzea".


KOMIKIA



ZORION AGURRAK




Eider
Gure etxeko sorgiñari, zorionak zure 17. urtebetetzean. Familiaren partetik.




Ainara
Zorionak!! Muxu haundi bat familiaren partetik.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 22




Larunbata, 23




Igandea, 24




Astelehena, 25




Asteartea, 26



Asteazkena, 27



Osteguna, 28



JAIOTZAK

Markel Rodriguez Verdugo. Maiatzaren 15ean.
Servando Vicente Garcia. Maiatzaren 12an.

HILDAKOAK

Frantxiska Saizar Lopetegi. Maiatzaren 15ean.
Asensio Marticorena Usategui. Maiatzaren 15ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 22 ACHA-ORBEA
LARUNBATA, 23 LASA
IGANDEA, 24 LASA
ASTELEHENA, 25 URBISTONDO
ASTEARTEA, 26 GANDARIAS-URIBE
AZTEAZKENA, 27 ORUE
OSTEGUNA, 28 DE MIGUEL

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Urrutia-Martin: Etxeberri auzoa 1 (Florida auzoa), Hernani/ 943 55 77 38

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTTERRI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

OHARRAK

Posta bidezko bozka

Lasarte-Oriako EAJk bi bide jarri ditu beraiekin harremanetan jarri eta uztailearen 12ko hauteskundeetan bozka posta bidez emateko laguntza eskatzeko: 943 36 34 09 telefonoaren bidez, edo 652 706 820 zenbakira Whatsapp mezu bat bidalita. Mezu horretan adierazi beharko dira izen-abizenak, NAN zenbakia, jaiotze-data eta botoa emateko dokumentazioa jaso nahi den posta helbidea. Eskerak egin daitezke honezkerero.

Maileguak itzultzeko epea luzatu du Udal Liburutegiak, ekainaren 15era arte

Lasarte-Oriako Udal Liburutegiak jakinarazi du beste aste batzuek luzatu duela herritarrek maileguan daukaten materiala bueltatzeko epea. Momentuz, ekainaren 15era arte, astelehenarekin. Informazio gehiagorako, 943 37 61 81 telefonora deitu edo i.urdanpilleta@lasarte-oria.eus helbide elektronikora idatz dezakete herritarrek.

SUDOKUA

6		7			2			9
8				5			6	
		4	8	6		7		2
		6	4		9	5		
				2		6		1
1	7			3				8
4			6	7		1		
	1	8			5			
7			1				2	3

ESKELA

ESKELAK JARTZEKO: 646 82 44 66
edo **PUBLIZITATEA@TTAKUN.EUS**

- ▶ Hileta egunean eskela Txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean: 80€

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan

Eskelak Txintxarrin
90 euro

AZOKA TXIKIA

LANA

ESKARIA

Lasarte-Oriako bi neska gazte gara; udaran haurrak zaintzeko prest gaude. Haurrek udaran eskolako errefortzu lanak egin nahi baituzkete ere prest egongo ginateke lagutzeko. Deitu edo bidali whatsapp bat zenbaki hauekara: 688 777 280 edo 610 325 280.

SALEROSKETAK

SALDU

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aukia + Maxicosia. Arina, erosoa eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 300 euro. 646 824 466.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia.
12 €
(BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646.824466

GUTUNAK

ZENBAIT UDALTZAINEN JARRERA DELA-ETA

Jaione Txapartegi

Joan den asteazkenean, maiatzak 14, nire senarrak argazkia atera zien gure etxeko balkoitik, taberna bateko terrazan zutik kafe bat hartzen ari ziren Lasarte-Oriako hiru udaltzaini. Ez zuen ezkutuan egin eta ikusi egin zuten. Ondoren, paseatzera atera zen, jarduera horretarako bere ordu-tartea baitzen.


Handik gutxira, gure alaba behin eta berriz txirrina jotzen esnatu zuten, eta atea irekitzean udaltzainak zirela ikusi zuen. Galdetzen hasi zitzairen bere aita etxean al zegoen, bakarrik ote zegoen... Gure etxean sartu ziren, gure alaba izutuaren galderei jaramonik ere egin gabe, (distantzia sozialik zaindu gabe, maskararik gabe, eskularrurik gabe) eta balkoira joan ziren argazkiak atera zizkieten toki bera zen ala ez egiaztatzen. Irtetean, alabari esan zioten mehatxu eginez aitari esateko argazki hori whatsapp, sare sozial edo egunkarietan ikusten bazuten epaitegira eurek pertsonalki eramango zutela.

Udaltzainek edozein herritarrek dituen eskubide eta betebeharrak berberak dituztela uste dut benetan, baina, era berean, uniforme hori eramateak betebeharrak moral bat dakarrela berarekin ere uste dut: herritarrei eredu ematearena.

Taberna baten kanpoaldean kafe bat zutik hartzea, zuena ez den etxe batean sartzea, maskararik gabe, eskularrurik gabe, distantzia sozialik zaindu gabe, beste herritarrok egin ezin ditugun jarrerak dira gaur egun.

Beraz, zintzotasun eta apaltasun pixka bat besterik ez dut eskatzen gauzak ondo egiten ez direnean, eta ez egun horretan erabilitako harrokeria eta jarrera mehatxagarria.

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:30	11:40	11:45	11:50
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

- 12 plaza erabilgarri izango ditu.
- Segurtasun tartea mantendu beharko da.
- Autobus barruan nahitaezkoa izango da maskara, eta erabiltzaile bakoitzak bera eraman beharko du
- Txartelarekin bakarrik ordaindu ahal izango dute

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldúa eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Iraiti Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzaileak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde,
Erlantz Ezeiza, Iñigo Garcia eta
Jose Lanchas.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Datu onenekin batera, aurreikuspen okerrenak

Covid-19ak eragindako krisiaren eraginez, gure ahalegina biderkatu dugu tokiko hedabideok, irakurleen informazio gosea asetze aldera; inoizko datu onenak izaten ari da gure webgunea. Prebisioak, aldiz, latzak dira: %72 jaitsiko da fakturazioa abuztura arte

Txintxarri

Paradoxaz betea izaten ari da Covid-19aren krisia tokian tokiko komunikabideontzat. Ekonomia guztia geldotu den unean, gure ekoizpen erritmoa bizkortu behar izan dugu hedabideok, gure helburu eta eginbeharrari eutsiz: herritarren informazio gosea asetzea, eta norbanako, eragile eta instituzioei informazioa zabaltzen laguntzea, gertutasunez eta euskaraz. Osasun krisiaren gogorrenean, gure kasuan, atari digitalaren bitartez eta papereko produktzioa geratuz, gure burua berriro urrats hori egiteko gai ikusi dugun arte, konfinamendua arintzen hastearekin batera.



Inoiz baino bisita gehiago jaso ditu TXINTXARRI-k martxo eta apirilean. TXINTXARRI

Gure irakurleek informazioa eskatu digute, eta, ahal izan dugun heinean, eman diegu, ahalik eta egokien eta azkarren, egoera honek hala behartuta. Era berean, euren etxeetan egon bitartean, eskaini dizkiegu aisialdiarekin zerikusia duten eduki ugari ere: errezetak, bideo tutorialak, Ttakun KEko lankideekin koordinatutako Haurraren Eguna eta beste hainbat. Aurre egin diogu erronkari, zailtasunak zailtasun, guretzat ere ez baita erraza izaten ari errealitate eta lan egiteko modu honetara egokitzea, ohitzea eta doitzea.

Datuak eta aurreikuspenak

Paradoxa honen ertzetako bat: gure atari digitalak, txintxarri.eus-ek, inoizko datu onenak erdietsi ditu martxoan eta apirilean: inoiz baino erabilzaile gehiagok nabigatu dute gure edukietan, inoiz baino saio gehiago hasiz, eta inoiz baino gehiago bisitatuz webgunea. 2020ko martxoko datu batzuk: 40.897 bisita –iazko martxoan baino %70 gehiago–; 8.102 erabilzaile –bikoitza baino gehiago–; eta 16.969 saio –%115,37 gehiago–. Apirileko

datuak ikaragarri onak izan dira baita ere: 40.944 bisita, 7.853 erabilzaile eta 17.097 saio. Mila esker denoi!

TXINTXARRI-k tokiko hedabideen joerarekin bat egin du, trafiko igoeraren olatua hartuz. Tokikomek plazaratutako datuen arabera, bazkide direnen Interneteko kontsumoa %97 hazi da 2019ko apiriletik aurtengora, eta %62 osasun krisi hau hasi zenetik. Orain arte egindako lanaren adierazgarri argia.

Paradoxa honen beste ertzeta, alde laiotza: Alarma Egoeraren eraginez, tokiko hedabideen fakturazioa %72 jaitsiko dela aurreikusten du Tokikomek: 2.500.000 euro inguruko galera abuzturako. Enpresa eta saltoki txiki gehienek nahi eta nahi ez eten behar izan dute euren jarduera, gure diru-sarrerara komertzialak erasanez: bat-bateko murrizketa bat ekarri du horrek, TXINTXARRI-ren proiektuari ere eragingo diona. Dena den, hasi gara alternatibak bilatzen, egoera berrira moldatzen saiatzen, ataka zail honetan guztiok batera aurrera egingo dugulako, beste hainbatetan egin izan dugun bezala.



*Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz*

DESKONTU BEREZIAK HERRIKO KOMERTZIO ETA OSTALARIEI

- PUBLIZITATEA
- PUBLIERREPORTAJEAK
- PUBLIZITATEA INTERNETEN
- GIDA KOMERTZIALA...

EGOERA ZAIL HONETAN DENOK BATERA AUERRERA EGINGO DUGU!

ESKATU TARIFAK: publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66

2019 eta 2020an jaiotako haurrak



LASARTE-ORIAKO ANDREJOAKINA HAURRESKOLA

Izena emateko epea:

Matrikula online:
Maiatzaren 21etik ekainaren 8ra

Aurrez aurrekoa:
Ekainaren 1etik 8ra
Aurrez aurreko ordutegia:
9:00etatik 14:00etara



www.haurreskolak.eus

**Kalbario bidea, 2 Tel: 943 36 72 38
andrejoakina.lasarte-oria@haureskolak.eus**

**Zuk jolasa ikusten duzu.
Guk bere garapenean ere laguntzen dugu.**